

gizon doatsu ura zegoen etzinda bere lastozko oyaren gañean, zazpi semeak inguruan zituela. Agure arren arpegia, bere bizar luzea beziñ zuri zan; baña begirasuna, guziz irmea. Gizon zuzenak ez dio eriotzari beldurrik.

—Seme biotzekoak—zion—urak estali dute lurra, baña ez dituzte ondatu gaiztakeriak; ugarteak urpetu dira, baña gezurrak igeri egin du uraren gañean. Ikus zazute mundua, berriró tallu ustelak adora-tzen. Ordea, nere semeak en dira belauntuko beren eskuetako egi-tadearen aurrean. Sinistu zazute Jaungoiko bakar bategan, ta obe-ditu beti gurasoei. Aita da lege emantzallea; eta echetik kanpora, zarrenak izango dira guraso. Ekarrí ditutan aberatstasunak lur-pean daude; bakarrik laga nai dizutet nere izen onraduna, ta ar-kaitz arte auek, beretan lan egiñaz, zorionekoak izan zaitezten. Etzaitzete besteen lurrak irabaztera joan, eta ez izan iñork mende-tuko zaituzten beldurrik.

Au esanik, ill zan gizon itzal aundiko ura, geratzen zala bere erria, zazpi lurbira edo pusketan berezitua.

ECHEGARAY-KO KARMELO-K.

VILINCH BIURSARIAREN DOAINDIGOAN.

AMALAUDUNA SEÑALADO CON **MENCION HONORÍFICA** EN LOS JUEGOS FLORALES DE ESTA CIUDAD.

¡Donostiárrak! ¡Donostiárrak!  
 ¿Gaur zerk zaituzte zuek gozáten?  
 ¿Gudari pórtitz piñeen jazárrak  
 Al dituzúte gógoz ospátzen?  
 ¿Ichas-umánten ázaiñ azkarrak  
 Al zabilzáte pózez kantátzen?  
 ¿Nóla bestéla zúen ibárrak  
 Módu orrétan díra zorátzen?<sup>1</sup>  
 —Járrí nai degu Vilinch ernaiya  
 Erramu lórez koroituríkan;  
 Beraren izen maitagarriya  
 Urre-letrákiñ ezarriríkan;  
 Arritu dédin Euskal-erriya  
 Aren doaiyak ikusiríkan.

Echegaray-ko Karmelo-k.

(2) Zoratu=Rebozar de placer.